

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

5004

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 11koa, Gazteriako zuzendariarena. Honen bidez, jendaurrean jartzen da 2022. urtean zer diru-kopuru eta nori eman zaion Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko apirilaren 27ko Aginduaren babesean, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen baita, 2022. urtean honako jarduera hauek sustatzeko: diagnostiko-azterketak egitea, gazte-emantzipazioko planak eta gazte-planak egitea, plan horien jarraipena edo ebaluazioa egitea, eta toki-mailako beste ekimen batzuk egitea edo horiek sistematizatu eta ebaluatzea, baldin eta horien helburua gazteen emantzipazio-prozesuan laguntzea bada.

Gazteriako zuzendariaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar da, horixe xedatzen baitu 2022ko apirilaren 27ko Aginduaren 17.4 artikulua.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko apirilaren 27ko Aginduaren babesean 2022. urtean onartu diren dirulaguntzen eta onuradunen zerrenda argitaratzea. eranskinean daude jasota.

2. artikulua.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, denak jakinaren gainean egon daitezen.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 11.

Gazteriako zuzendaria,
MIREN SARATXAGA DE ISLA.

2022ko azaroaren 18a, ostirala

ERANSKINA

Erakundea	Egitasmoa	Dirulaguntza
Astigarragako Udala	Astigarragako gazte planaren jarraipena: aurreikusitako ekintzen jarraipena eta herriko gazte zein udal teknikarien balorazioak.	1.900,11
Barakaldoko Udala	Diálogo con la juventud «gazteon barakaldo»	3.569,50
Atxondo Haraneko Udala	Atxondo Up Proiektua	9.200,00
Zumarragako Udala	Administracion Local	10.900,00
Donostiako Udala	Etxebizitza topaketa	3.500,00
Elgoibarko Udala	Elgoibarko gazteen emantzipaziorako plana	17.545,00
Segurako Udala	Gazteekin, etxebizitzaren inguruko azterketa eta beharrak identifikatzen	8.053,20